

BILBOROCK, GAZTE EGUNAK

DÍAS DE GRATUIDAD EN BILBOROCK PARA PERSONAS/COLECTIVOS JÓVENES

¿Eres joven y quieres programar alguna actividad/evento en Bilbao? ¡Bilborock es tu espacio!

Con el fin de facilitar que las personas y colectivos jóvenes puedan programar sus propias actividades/eventos en Bilborock, los **martes y/o miércoles (dos días cada mes)** se ofrece la **tarifa BR** de la Sala Polivalente de forma gratuita. Esta tarifa ofrece los servicios de proyector, pantalla de cine, iluminación básica, un par de micros y auxiliar de sala.

Estas actividades/eventos se incluirán en la Programación de Bilborock y por lo tanto se darán a conocer a través de sus canales de difusión.

¿Quién puede presentar alguna actividad/evento?

- Jóvenes entre 18 y 35 años.
- En el caso de presentarse en grupo más del 50% de las personas deberá tener también entre 18 y 35 años.

Se pueden presentar una o más propuestas a lo largo del año.

¿Qué tipo de actividad/evento se puede presentar?

Actividades/eventos relacionados con las diferentes tendencias musicales, artes escénicas, tecnología, diseño, creación, innovación y otras tendencias dirigidas, principalmente, a personas jóvenes.

Los requisitos técnicos de la actividad/evento deben estar dentro de los que ofrece la Tarifa BR.

Además hay que tener en cuenta que el aforo de la sala polivalente es de 326 personas de pie y 150 personas sentadas.

Cómo realizar la inscripción y plazo:

Las propuestas se enviarán a bilborock@bilbao.eus, con el **asunto: Gazte Egunak**, cumplimentando una ficha descriptiva de la actividad, [disponible aquí](#). Nos reuniremos contigo para que nos expliques la propuesta.

¿Qué criterios tendrá en cuenta el Área de Juventud y Deporte para valorar la solicitud?

- Su interés y atractivo.
- La participación de otras personas jóvenes en las actividades/eventos.
- La disponibilidad de la sala polivalente en la fecha solicitada.

El Área de Juventud y Deporte denegará aquellas propuestas que no sean adecuadas para incluir en la programación de Bilborock.

Más información

bilborock@bilbao.eus

944 15 13 06 (de lunes a viernes de 10:00 a 14:00 y de 17:00 a 21:00 horas)

BILBOROCK, GAZTE EGUNAK

GAZTEEK ETA GAZTE ELKARTEEK BILBOROCK DOAN ERABILTZEKO EGUNAK

Gaztea zara eta Bilbon ekintzaren/ekitaldiren bat programatu nahi duzu? Bilborock da zeure gunea!

Gazteek eta gaztez osatutako elkarteek Bilborocken haien jarduerak/ekitaldiak programatzen laguntzeko, **astearteetan edo/eta asteazkenetan (hilabetean bi egunetan)** Erabilera Askotarako Aretoko **BR tarifa doan eskaintzen dugu**. Tarifa horren barruan, proiektorea, zinemako pantaila, oinarrizko argiteria, mikrofono pare bat eta aretoko langile laguntzaileen zerbitzuak eskaintzen ditugu.

Jarduera/ekitaldi horiek Bilborock aretoaren programazioaren barruan sartuko dira eta, beraz, haien berri emateko dauzkan hedabideetan zabalduko dira.

Nork aurkeztu dezake ekintzaren/ekitaldiren bat?

- 18 eta 35 urte arteko gazteek.
 - Talde gisa aurkeztuz gero, taldekideen erdiak baino gehiagok 18 eta 35 urte arteko adina izan behar du.
- Urtearen barruan proposamen bat baino gehiago aurkeztu daiteke.

Nolako ekintzak/ekitaldiak aurkeztu daitezke?

Jarduerak edo ekitaldiak, batik bat, gazteengana zuzenduta egongo dira, hurrengo alorrei lotuta: musika-joerak, arte eszenikoak, teknologia, diseinua, sormena, berrikuntza, eta beste batzuk.

Jarduera/ekitaldiaren baldintza teknikoek BR Tarifak eskaintzen dituen baldintzen barruan egon behar dute.

Horrez gain, Erabilera Askotarako Aretoa 326 lagun zutik eta 150 jesarrita sartzen direla kontuan hartu behar da.

Izena emateko modua eta epea:

Proposamenak bilborock@bilbao.eus helbide elektronikora igorri behar dira **Gazte Egunak** gaia erabiliz. Horretarako, jarduera azaltzen duen fitxa bat bete behar da, honako [esteka honetan](#). Zurekin batzartuko gara proposamena azaldu dezazun.

Zeintzuk dira Gazteria eta Kirol Sailak eskabidea baloratzeko kontuan hartuko dituen irizpideak?

- Interesgarria eta erakargarria izatea.
- Jardueran edo ekitaldian beste gazte batzuek parte hartzea.
- Erabilera Askotarako Aretoa egun horretarako erabilgarri egotea.

Gazteria eta Kirol Sailak Bilborock aretoaren Programazioaren barruan sartzeko egokiak ez direnak baztertuko ditu.

Gehiago jakiteko

bilborock@bilbao.eus

944 15 13 06 (asteleheneretik ostiralera 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara)